

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Durako eta Gasteizko hainbat zerbitzutara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 830023.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/830023>.

Alkatearen maiatzaren 2ko 119/2025 Ebazpena, zeinaren bidez Durako eta Gasteizko hainbat zerbitzutara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke dirulaguntzetarako deia egiten baita.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradunak izango dira ibilgailurik ez daukaten edo aldi baterako gidatzeko ezinduta dauden pertsonak, baldin eta 2. artikuluan adierazitako zerbitzuetako hitzorduetara joateko eta itzultzeko autobus linearik ez badute. Udalerrian erroldatuta egon beharko dute gutxienez urtebete lehenagotik, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean eduki dirulaguntzaren behin betiko ebazpena eman arte. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru sarreretatik eratorritako edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zorrak edo zehapenak. Eginbehar hori adin txikikoen edo legez ezgaitutako pertsonen tutoretza daukaten pertsoneri ere aplikatzen zaie. Bi betebeharrak eskaerak ebatzi arte bete behar dira.

Bigarrena. Xedea

Diruz lagundu ahal izango da Durako osasun zentroaren, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren eta Osakidetza eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gasteizko kontsulta ordutegian zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailu bat gidari eta guzti kontratatzeagatik sortutako gastua, baita izapide mediko-sanitarioak edo era guztietako administrazio kudeaketak egiteko Gasteizera joateko zerbitzu hori kontratatzeagatik gastua ere.

Pertsona eta hileko, gehienez, 4 bidaia/ibilbide lagunduko dira diruz.

Bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga udalerriko herrietako bat eta Dura edo Gasteiz izan beharko dira.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, haietako bati baino ez zaio diruz lagunduko kostua.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arauen aldaketa Udaltzaren 2025eko otsailaren 26ko bilkuran onetsi zen eta 2025eko apirilaren 11ko ALHAOn argitaratu (42/2025 zenbakia).

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak egindako gastuaren ehuneko 60koak izango dira.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskatzaileek eskaera bana aurkeztu beharko dute hilero, egindako bidaien/ibilbideen zerrendarekin.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Enpresaren faktura edo harekin pareka daitekeen tiketa, egindako ibilbidearen eguna, ordua eta jatorria eta helmuga jasotzen dituena.

Hitzordura joan izanaren frogagiria.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2025eko maiatzaren 2a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE